

2003ko urriaren 16a • XXIII. urtea



Fernando Etxegarai
txapela eta marka

03

Fernando Etxegarai beratarrak Nafarroako koxkor biltze txapel berri bat jantzi zuen lgantzin egin-dako finalean. Gainera, Euskal Herriko marka hobetu zuen.



Elikadurari buruzko
jarduna Lesakan

03

Urriaren 28-29an elikadura eta nutrizioari buruzko jardunaldiak eginen dira Lesakan. Belen Compains pediatriaren ustez, «gaizki jaten duen ume aunitz dago».

04 Indart senar-emazteak: Uso eta basurde ehizaz haratago



Denen artean, Bera

Aurkezpen ekitaldia
urriaren 17an, 19:00etan Jamotenean
Patxi Zabaletaren parte hartzearekin

Eman botoa

 **ARALAR**

Burdingintza profesionala

Eraikuntzako materiala

Zuraren ebaketa eta lanketa

Brikolajea

6000 m²-ko instalazioak

www.alkain.com



alkain



Amutalde kalea, 17 • 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 642 025 • Faxa: 943 643 239

DATUAK...

- Belen Compains iruñarra pediatra da Lesakako Osasun Zentroan azken hamar urteotan.
- Osasun arloko eta gizarte zerbitzuetako langileak, ikastetxeetako orientatzaileak eta Guraso Elkarteetako kideak biltzen dituen ELAIA elkarteko kide da.
- Urriaren 28 eta 29an elikadura eta nutrizioari buruzko lehen jardunaldiak antolatu dituzte Lesakan, neska-mutikoei eta beraien irakasle eta gurasoei zuzendua.



Belen COMPAINS ELAIA elkarteko kidea

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Anorexia edo bulimia albora utzita, gaizki jaten duten ume aunitz daude»

Aitor AROTZENA

Noiz eta zein helbururekin sortu duzue Elaia elkarte?

Hemengo ikastetxeetako orientatzaileekin biltzen hasi ginen, haurren inguruko zenbait gaietaz solasteko. Talde gisara funtzionatzen hasi ginen neurrian, bertze gai batzuetan sartzen ahal ginela iruditu zitzaigun. Hiperaktibitateari buruzko jardunaldi bat antolatu genuen. Osasun Departamenduak dirulaguntza bat ematen du, baina horretarako elkarte osatu behar genuen. Hortik sortu zen Elaia elkarte. Lanean segitu genuen, nerabezaroari buruzko ikerketa bat egin nahi izan genuen, baina ez zen ongi atera eta orain elikadura eta nutrizioari buruzko jardunaldi hauek eginen ditugu.

Ahoz aho dabilzan gaiak dira anorexia, bulimia... kezka horrek bultzatuta antolatu dituzue jardunaldi hauek?

Hau antolatza ez gaitu anorexiak edo bulimiak bultzatu, hori baino egunerokoagoa da. Gaizki jaten dela ikusten dugu, zenbait nerabek ez dute eskoletako jangeletan jan nahi dieta

«Nafarroako Unibertsitateak egin du Bortzirietako nerabeen jateko ohiturei buruzko ikerketa eta, hain zuzen, jardunaldietan aurkeztuko dira emaitza batzuk»

estu bat dutelako, bertze batzuk osatuetako bokatak bakarrik jaten dituzte... orokorrean, jateko ohiturak galtzen ari direla somatzen dugu. Anorexia eta bulimia izan bada hemen, baina punta tiki bat bertzerik ez da. Batez ere gaizki jaten duen ume aunitz dago: gaizki antolatuak, egunean bi otordu egiten dutenak, lau gauza jaten dutenak... Nafarroako Unibertsitateak egin du Bortzirietako nerabeen jateko ohiturei buruzko ikerketa bat eta hain zuzen, jardunaldietan aurkeztuko dira emaitza batzuk.

Aurkezpen honetaz gain, zer gehiago azpimarratuko zenuke jardunaldi hauetan?

Jardunaldi hauekin, elikadurarekin lotutako ahalik eta arlo gehienak landu nahi izan ditugu. Osasun Zentro-

tik datorrela eta elikaduraren ingurukoa dela ikusiz, jendeak pentsatzen ahal du, "badakit zer erran behar duten, grasa guttiago eta fruta eta barazki gehiago jan behar dudala, eta kitto". Baina hori lehendik ere badakitenez, ez dira etorriko. Gure ustez ongi elikatzea, fruta eta barazkiak jatea baino hagitzek gehiago da, prozesu guzia hartu dugu: janariaren ekoizpena, erosketa, prestaketa, kultura... arlo aunitz daude. Goizak ikasleei zuzenduak egonen dira, lehen egunean nerabeak eta bigarrenegun Lehen Hezkuntzakoak. Ikastetxeetan beraien txokoak eta posterrak prestatu dituzte. Arratsaldeak helduentzako bereziak izanen dira. Dena den, mundu guziarentzat irekiak dira eta nahi duenak parte har dezake.

Eta etorkizunera begira, bertze zer-bait prestatzeko asmorik baduzue?

Bai, etorkizun hurbilean, atentzio goiztiarra landu behar dugu. Urtetan ari gara horrekin lanean eta orain Lesakan funtzionatzen hasi behar du. Atentzio goiztiarra zer den erakusteko jende aitzinean jardunaldiren bat egingen dugu.



ARGAZKIAK: CORPUS ERASUNEN UTZIAK

Inaxio Indart eta ehiza gidariak, Afrikan ehizatutako antilope adar-handi batekin.

Urria da ehiztarien hilabetea, dudarik ez. Baina inguru honetan ehizaz ari garenean, usoa, oilagorra edo basurdea datozkigu burura. Guttiago dira erriflea hartu eta elefanteak, lehoiak, leopardoak, jirafak, errinozeronteak, otsoak, hartz txuriak eta gisako animaliak noizbait ehizatu dituztenak. Hainbat pelikula eta erreportaietan ikusi ahal izan ditugun safarien munduan barneratu gara Legasako Inaxio Indart eta Korpus Erasun bere emaztearekin. Animalia hauek diseatu eta museo bat osatu dute Legasako etxean. Momentuz ez dute jendeari irekitzea pentsatzen.

LEGASAKO INDART SENAR-EMAZTEEN SAFARIK


Munduan barrena ehizatutakoak Legasako museoan erakusgai

Joseba OLAGARAI

Zineko filmeetan edo telebistako dokumentaletan sarritan ikusi izan ditugu safariak. Inguru honetan, horrelako batean parte hartu dutenak gutti dira, baina egon badaude. Legasako Inaxio Indart eta Korpus Erasun bere emaztea dira horietako batzuk. Corpusek erran digunez, «jende aunitz ibiltzen da honelako ehizian. Hemen ez horrenbertze, baina Bizkaia alde horretan bai. Ni berriro hasi naiz, 1995 urte inguruan, baina nire senarrak baditu hamar urte honetan». Uso eta basurde ehizirako afizioa izaki, ttitatik omen zuen Inaxio Indart-ek ehi-

zaki handiagoetarako irrika. "Noizbait Afrikara joan behar dut elefante bat hiltzera" erraten omen zuen. 1993an iloba hartu eta Tanzanian elefante bat hil zuen. Geroztik kasik urtero-urtero joan izan da eta zenbaitetan urtean bi bidaia ere egin ditu, batzutan Afrikara, bertzean Alaskara, Kanadara, Argentinara... 1995ean Zimbabwen bertze elefante bat hil zuen eta hori da museoan daukatena. Inaxio Indart hamabortz bat aldiz joan izan da safaira, Korpus emaztea berriz, sei bat aldiz. Gehienetan Afrika aldera jo du, baina ateraldirik gogorrenak Alaskara eta Kanadakoak izan omen dira.

Alaskan hartz txuria ehizatu zuen Inaxio Indart-ek. Korpus emazteak jakinarazi digunez, «ehiztari guziek erraten dute hau dela ehizatzeke zailena. Zero azpitik berrogei gradura ibili behar duzu, arropa bereziarekin joan behar duzu, janaria ere eraman behar duzu, han foka haragia gordinik jaten baitute. Bederatzi egun eman zituen eskimal batekin eta bederatzigarren egunean hil zuen hartza. Gero, bi urte pasatu ziren larua bidali arte, baina halere erraten zuen "larua igortzen ez badute ere, ez naiz gehiago joanen", hagitza-



Beldurra sentitzen da honelako animalien artean?

Pixko bat bai, nik behinipein, gauez batez ere. Lehenbiziko egunetan gehien bat, somatzen dituzu orroak, aso-

tsak aditzen dituzu... hagitz gaizki. Kanpamenduetan lo egiten dugu eta horietan ez da deus gertatzen. Gertatu izan dira heriotzak, baina guziak zuhurtziarik gabe joka-

Corpus ERASUN Legasako ehiztaria

tzeagatik izan dira. Halere, bufaloek, Tanzanian urtero urtero ehiztariaren bat hiltzen dutela erraten dute. Dene-tik arriskutsuenak omen dira, zauritua denean segitzen baldin baduzu, buelta eman eta jokatu egiten baitzaizki-zu. Hori geronek ere ikusi dugu.

Nolakoa izaten da safari-ko egun bat?

Afrikara ailegatu eta pape-rak moldatu bezain laister, abioneta hartu eta mendial-dera jotzen dugu. Lehenbi-ziko egunean, autoa hartu eta buelta bat ematen dugu, ingurua ezagutzeko. Biha-ramonean ehizian hasten gara errestotik. Beti eramaten dugu bertako bat, bel-tzak ikaragarriak dira erres-

toa hartzeko, bista izugarria dute, pauso guziak ezagu-tzen dituzte. Gero, gober-nuko bat ere izaten da eta hark dena apuntatzen du, zer egiten duzun, zer bota-tzen duzun, gauza guziek badute bere tasa han. Ge-hien bat Land-Roverra erabil-tzen dute, Tanzania eta Zim-babwe ongi baitaude horre-tarako. Kamerun eta bertze herrialde batzuk ez, eta ho-rietan ibili behar izaten da.

Zein da ehizatze-ko animaliarik zailena?

Gepardoa harrapatzea zaila da. Munduko animaliarik bizkorrena da eta ehizatze-ko hagitz zaila da. Leopar-doei haragia paratu eta eder-ki etorriko dira, baina ge-pardoak gosea duenean hiltzen du. Horregatik, zuk utzi-tako haragirik ez du jaten. Museoan duguna kasualida-dez ehizatu genuen duela bi urte.

“Gepardoa da ehizatze-ko zailena, zuk uzten diozun haragia ez baitu inoiz jaten”

gitz gaizki pasatu baitzuen, janaria gaizki, bakardadea, hotza...». Gepardoa ehizatzea ere zaila omen da, bakan ikusten direlako eta hagitz bizkor-rak direlako. Erraxena berriz, antilopea, «kantidadea badelakoz».

Animalia hauek ehizatze-ko armak ere bereziak dira. «Erriflea behar du-zu —dio Korpusek— eta balak ere fran-ko haundiak behar dira. Gero, Kana-dan adibidez, ibili eta ibili egin behar da harrapatu arte. Inaxio hamazazpi ordu ibili zen behin, eta han zaldiz edo oinez ibili behar da gainera. Afrikan al-diz, batzuetan haragia paratu erre-klamo gisara eta berehala agertzen di-ra animaliak».

LARRUAK EKARRI ETA DISEKATU

Behin animaliak ehizatu eta hu-rrengo pausua, larrua bereiz-tea izaten da. Afrikan ha-ragia bertakoek apro-betxatzen dutela

erran digu Korpusek: «*Larruak honat igorri eta diseckatu egiten dituzte ani-maliak, batzuk Madril-en, bertzeak To-ledon, Asturiasen... elefantea Afrikan bertan eginga da, Zimbabwen. Lehen-biziko igeltsoarekin egiten dute mol-dea eta gero larruarekin forratu*».

Hipopotamoak, jirafak, zebrak, fa-kotxeroak (hemengo basurdearen gi-

sakoak, tikiagoak, bana ikaragarriko letaginak dituzte) eta bertze hainbat animalia hil ditu Inaxio Indart-ek, bai-na oraindik ehizatzea gustatuko li-tzaiokenak ere badaude: Asiara jo-an nahiko luke, Mongolia inguruko ba-sahuntz gisako bat ehizatzea. «Zaldi gainean ibili behar da aunitz, dena ha-rra gainean... gogorra izanen da».

MUSEOA

Han-hemenka ehi-zatu dituzten animalia horiek, ehun inguru, In-dart-tarrek Legasan egin duten etxola bate-an bildu dituzte. Dise-katutako animalien on-doa, ehizako momen-tuaren argazkia jartzen dute, badaezpada ere. «Badakizu, —erran di-gu Korpusek— ba-karren batek erra-ten ahal du ez dakit non ero-

si izanen dugula. Badi-ra ehiztariak erosten di-tuztenak...».

Asturiasen badira gi-sako museo bat dute-nak, azkeneko hiru be-launaldietan lortutako sari-ekin, eta Bilbon ere orain hasia da partiku-lar bat. «Guk ere parti-kular eginga dugu, badi-ra bortsu urte egin nahi-zik eta azkenean egin dugu. Mo-

mentuz ez dugu jende-ari irekitzea pentsatu. Alde batera pena da, baina ikusiko dugu!». Hildako animaliak bal-din badira ere, hau bezalako irudi biziakikus daitezke Lega-sako museo be-rezi honetan.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitate: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakek Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakek Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Hauteskundeak direla eta Berako Herriari:

Aurtengo maiatzaren 25erako finkatu zuen gobernu espainiarrak hauteskunde eguna eta ezker abertzaleak hauteskunde horiek onartu eta parte hartzea erabaki zuen.

Udala osatzeko hautagaiak *Berainez* plataformaren bidez aurkeztu genituen Beran.

Herri plataforma honi, Euskal Herrian beste hainbati bezalaxe, Espainiak debekua jarri zion.

Baina debeku eta traba guztien gainetik Herri Plataformaren hautagaitza mantendu genuen. Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan *Berainez* izan zen Beran aur-

keztu zen zerrenda bakarra.

Oztopo guztien gainetik herriaren babes sendoa lortu zuen zerrenda honek. Udalbatza berriak, alkatea eta 10 zinegotziek osatua, ekainean egin zen aginte hartze ekitaldia Berako Herriko Etxean, jende anitzean aitzinean.

Hau da Berak gaur egun duen edo izan behar lukeen udalbatza.

Baina aginteak, berak nahi ez dituenak ateratzen badira, demokrazia eza egoera honetan, buelta egiten du bere gustukoak aterarazi arte. Eta horrela ailegatu gara urriaren 26ra, udal hauteskundeen erreprokapena egiteko Espainiak antolatu duen putxerazora.

Bere egunean udalbatzako talde nagusierekin lehiatu nahi izan ez

zuten taldeek maltzurki itxaron dute orain arte: hor ikusten ditugu gaur egun, sai patetikoko batzuen antzera, botereak eskaintzen dizkion apurak lortu nahian.

Bere egunean ez zuten lortu zerrenda bana osatzea eta orain, ezker abertzalea indargabetua dagoela uste dutenean, ugalduta dira kaparrak inguru beroan bezala.

Guk hausnarketa luze eta sakona egin dugu eta eztabaida bizia eta korapilatsuen ondoren *Berainez* izan da eta dela udal honetan zilegitasuna duen talde bakarra ikusten dugu. Eta Espainiar estatuko botereak, ezker abertzalea erakunde ofizialetatik kanporatzeko erabaki politikoa hartua duenez, gure bertze zerrenda bat aurkeztuta ere berdin-berdin debekatuko luke

orain edo gero, udal-etxean bere gustukoa ez den iritziren bat ematen duen unean bertan.

Zintzo jokatu dugu udaletxean, zuzen aritu gara deitu dituzten hauteskundeetan eta zintzo eta zorrotz jokatu dugu hemendik aitzinera ere Bera euskaldun eder eta solidario baten alde, arlo guztietan lan eginez. Azkeneko 22 urtez Berako gizartean egin dugun bezalaxe.

Hauteskundeak izan ziren, herriaren nahia gauzatu zen.

Hauteskunde zikin hauei EZ!

**Berako
ezker abertzalea**

UDALBILTZA®
EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSILEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltza.info.com

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2003-09-29

«Urak gero eta garrantzi gehiago dauka. Hemen –Santxotena parke-museoan– ikas dezakegu ura nola sortzen den eta horretarako erakutsiko dugu pareta bat goroldioz betea dagoena, hezetasunaren ondorioz. Hortik aparte, umeekin gauzak garbituko ditugu, plastikoak baldin badaude jaso, ingurugiroa zaintzeko. Orain ikasgaiak prestatzen ari gara».

Xabier SANTXOTENA
Arizkongo eskultorea
D. Navarra 2003-09-29

«Ahal dudana egingen dut lau terdiko txapelketa jokatzeko, baina zalantzak baldin badiut edo ongi ez baldin bandago ez naiz aterako. Sentsazio onak ditut, baina oraindik abudo da arituko naizen edo ez esateko».

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
D. Noticias 2003-10-04

«Orain hasten da denboraldia eta hau txapelketa polita eta garrantzitsua da».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D. Noticias 2003-10-04

• 11 GALDERA LABUR •

Irakasle, ikasle, igeriketa irakasle edo ttipi ttapako aurkezle?

Ikasle, bizitza guzian zer ikasi badaguelako.

Gurasoak irakasle, horrek bultzatu zaitu, lagundu zaitu edo aspaldiko nahia zen?

Aspaldiko nahia zen, barrenean eramaten dut.

Berako Baietz Peñako kidea, deskriba ezazu kuadrilla,

Bestazaleak, umoretsuak, muszaleak, kirolariak eta aunitz garenez denetik pixka bat.

Zergatik hartzen du hainbertzeko entzuna Baietz Peñak?

Gauzak antolatzen kuadrilla saiatua da, eta denen gustukoak izatea zaila da.

Bordatxozalea izana, zer da hanturgesan kontu hori?

Sarrerren erreibindikazio bat izan zen kuadrilako bertze batekin, geroztik mutil eta nesken sarrerren prezioan berdintasuna lortu genuen.

Non nahiago duzu igeri egin, Berako igerilekuan edo Doneztebeko ostatueta?

Denantzako denbora bada, egunez igerilekuan eta asteburu gauetan dantza egiten.

Ze gomendioak ematen dizkiozu ikasleei besta on bat egiteko?

Kuadrilan afari on bat egin, dantza eta ahal bada ligatu.

Zer gobernatzen duzu aixago, ikasleak, kuadrila edo gurasoak?

Norbait gobernatzea zaila da, elkar errespetatzen bada ez da gutti.

Ortzilin musa, larunbatean besta edo igandea neskarekin?

Bakoitzak balorazio desberdina du, ongi antolatuz gero dena egiten ahal da.

Kirolan arrakasta, neskekin arrakasta, hurrengo arrakasta?

Arrakasta? Nere ustez ez da horrela. Duguna mantendu eta orain lan mundua dut helburu.

Alkaigarra bihurtzen ari zara, Lesakarra?

Alkaiaga independente.



Aritz PEREZ
Berako irakaslea

IRU BIDE
BETTER
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • **LESAKA**

XATURETXEA
Zabai
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

bortzirUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN
Eztegara 26 behea **Tel.- Faxa: 948 63 15 21**

LESKA

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

Alzuri
Tfnoa: 948 630 370
BERA
Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

KULTURA

Abian da bertze urte batez Nafarroako Euskal Kantu txapelketa

Izen emateko azkeneko eguna azaroaren 1a izanen da

ttipi-ttapa

Ireki da bertze urte batez Nafarroako Euskal Kantu txapelketan izen emateko epea. Heldu den azaroaren 1a izanen da azkeneko eguna eta horretarako Euskal Kantuzaleen Elkartera (948 141812) edo edozein euskal irratira deitu behar da, erraterako Xorroxinera (948 452453) edo Karrapera (948 610914).

Euskal Kantuzaleen Elkartetik jakinarazi dutenez, euskal kantagintza zabaldu eta erakustaraztea, kantatzeko zaletasuna biztea eta kantari berriak plazaratzea izanen ditu helburu aurtengo edizioak. Eta horretarako, gainera, nobedade bat paratu dute martxan: aitzineko urteetako partaideentzako maila berezi bat. Izan ere, partehartzaileen mailak goiti egin du azkeneko urteetan eta horrek partehartzaile berriei ematen ahal dien beldurra saihesteko helburuarekin egin da ke-



ARGAZKIA: ELHUYAR

Duela zortzi urte Donezteben egindako finalean, Arantzako taldea kantari.

tegoria berri hau. Hemen sartzeko, txapelketaren finalera ailegatu izana izanen da irizpide nagusia. Bertze aldetik, taldeen partehartzea bultzatzea ere erabaki dute, Kantuzaleen Elkartearen ustez. «euskal kantua bizitzeko eta ulertzeko dagoen modurik ederrenetakoa iruditzen zaigu eta».

Txapelketari dago-

kionez, aurtengo bi kanporaketa egingen dira. Lehenbizikoa azaroaren 8an Etxarri-Arana-ko Kultur Etxean eta bigarrena azaroaren 15ean Zizur Nagusiko kultur etxean. Final nagusia, berriaz, Doneztebeko Bordatxo dantza-lekuak hartuko du bertze aldi batez, aurtengo azaroaren 22an.

Honetaz gain, aurtengo

«Gazteak Kantari» kontzertu zikloa gauzatu da urte osoan. Horrela, ordu bateko hamabortz kontzertutako zikloa egitea proposatu da eta txapelketako azken edizioetako partaideak izanen dira herriz herri ibiliko diren musikari-kantariak. Dagoeneko zenbait herritan egin dira kantu emanaldi hauek.

LEITZALDEA

Etxe izenak euskaraz jartzeko dirulaguntza emanen du Euskara Zerbitzuak

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak etxe izenekin errotuluak jartzeko kanpaina bultzatuko du Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan. Etxez etxe informazioa banatuko da kanpainaren arrazoiak eta azalpenak emateko eta etxe izenak euskaraz jartzeagatik dirulaguntza emanen da. Errotulua kostatzen denaren erdia bitarte ordainduko da, gehienez 120 euro.

Izan ere, lehen izena ematen zitzaien bezala, orain zenbakia ematen zaie etxeei, eta badirudi, zenbakia erabili behar dugula izenaren orde. Hori dela eta, gure betiko ohi-turari eusteko deia egin du Euskara Zerbitzuak eta bidenabar, herritar guziei etxe izenarekin errotulua jartzeko animatu.

© 948631076 • BERA

© 948630052 • Zalain • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK
Bera - Tfnoa: 948 618 715 - 407 486 781

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Zalain
jateetxea
10º SAGUN DIN • TEL 948 63 79 47
Bera • Nafarroa

BERA

Hilerria haunditzeko eta suhiltzaileen parkearentzako dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak bi
proiektuak lagunduko ditu

Amaia eta Ainhua

Nafarroako Gobernuak Berako udalari bi proiektuentzako dirulaguntzak eman dio, Suhiltzaile Parkearentzako eta hilerria haunditzeko obrarentzako hain zuzen. Juan Ramon Rabade Iraizozek, Barne Saileko Zuzendari Orokorrak, hiru ebazpen sinatu ditu hauen bidez Aoit, Luzaide eta Berako Suhiltzaile Parkeari dirulaguntzak bideratzeko. Zehazki, Berako Udalari 37.672,01 euroko laguntza eman dio material inbentariatzina erosi, parkearen mantenua eta faxa erosteko. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak hainbat herritako udalei 2001-2003 edo 2004 hirurteko Azpiegitura Planaren barnean zeuzkaten proiektuentzako dirulaguntza eman die.

Berako kasuan, hilerria haunditzeko obrarentzako guztira 319.863 euro jasoko ditu Udalak

Shisha Pangma 2003 espedizioa bueltan

Ailetu berri dira pasaden irailaren 1ean Himalayarentz, Shisha Pangma zortzimilakoa egiteko asmoz abiatu ziren Luis M^a Pikabea eta Xabier Zubieta. Beren asmoa ez dute lortzerik izan, hainbat faktore kontra izan baitute. Kanpo basean zeudela, beraien eskalatu asmo zuten paretaren egoerari buruzko hainbat zalantza sortu zitzaizkien, eta eguraldiak lagundu zirenean, gorantz egin zuten 6500 metro arte, bertan gaua egitera. Berritro ere basera jaitsi zirenean, beraien susmoa txarra zela frogatu iza-



ARGAZKIAK: TTPI-TTAPA TB

Berako Elizako ezquila berritzen

Urriaren 3an, goizeko 9:30ak inguruan, San Esteban elizako lau ezkilatetik bat dorreatik jautsi zuten argazkian ikus daitekeen moduan. Badirudi ezquila nahiko hondatua zegoela eta horregatik Valladolideko enpresa batera eraman zuten bertan urtu eta berriz ere ezkil berria egiteko. Ezquila moldatzeko gastuak bere izena eman nahi ez duen herritar batek hartu ditu bere gain.

teaz gain, ezbehar izugarri batekin topo egin zuten: beraiekin batera Frantziar espedizio bat zegoen basean, eta beraietako bi hil egin ziren aklimatazio lanean ari zirela. Hau guztia gutti balitz, beraien saiakera egiteko denbora fisikoa ere agortuz zihoan. Beraz, gogoeta luzea egin ondotik, bueltan etortzea erabaki zuten, hurrengoan ere hor egoen baita mendia beraien zain.

Lurraren Eguneko gazta lehiaketa

Azaroaren 2ko Lurraren Eguneko gazta lehiaketarako gaztak urriaren 27an hartuko dituzte Rikardo Baroja ikastetxean goizeko

10:00ak arte. Antolatzailleek 10 euro ematen dute lehiaketara aurkeztu den gazta bakoitzarengatik.

Dantza eta inprobisazio ikastaroa

Berako Kultur Batzordeak lagunduta, Larixene BATEk dantza eta inprobisazio ikastaroa antolatu du aurten goian ere. Christine Burgos kultur etxean egonen da hiru egunetako ikastaroa emateko: urriaren 31n (18:00etatik 21:00etara), azaroaren 1ean (10:00etatik 15:00etara) eta azaroaren 2an (15:00etatik 20:00etara). Izena emateko 617185990ra deitu behar da urriaren 17a baino lehen.

Kultur agenda ekitaldiz betea

Urriaren 18an Berandu argazki liburuaurren aurkezpenean izanen da arratseko 22:00etan Kultur Etxean Ertz Arte Guneak antolatuta.

Urriaren 24an Angela Mejias eta Antonio di Bellonio argazkilarien Haurren Begiradak erakusketa irekiko da azaroaren 8ra bitartean. Aslehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara ikusi ahal izanen da.

Urriaren 25ean 22:00etan Karidadeko Benta izeneko kontzertua izanen da. Jon Maiaeren bertso eta koplei munduko herri desberdinetako doinuak jarriko dizkiete ez ohikoak diren musika tresnaz lagunduta.



Lurraren Eguna
azaroaren 2an

LESAKA

Babes Ofizialeko 27 etxebizitzaren proiektua onartu du Udalak

Onin taldeak kontra bozkatu zuen, aztertzeke astirik izan ez duelako

Aitor AROTZENA

Asilo zaharrak utzitako lur eremuan egin beharreko babes ofizialeko 27 etxebizitza, bulegoak, baxu komertzialak eta garajeak eraikitzeke proiektua onartu du Udalak, EAJ-EAko zinegotzien aldeko botuekin eta Oningo kontrakoekin, «proiektua aztertzeke astirik ez dugulako izan». Alkatetik, «herriko gazte aunitz etxebizitzaren esperoan daudela» eta proiektu hau «aitzineko legealdetik datorrela» erran zuen.

Gai honetaz gain, bertze udal kontu garrantzitsuei buruzko informazioa (Zambra aretoaren balizko erabilera edo igerileku estaliarena, erraterako) prentsaren bidez jakin dute la salatzeke prentsaurrekoa eskaini zuen irailaren 29an Onin udal taldeak. Gai hauek mahai baten inguruan eztabaidatu behar direla eta udal taldeek ez ezik, herriko elkarte eta taldeek adostu behar dituztela erran zuten Onin udal taldekoek. Herria Aitzinera plataformak, etxebizitzari buruzko batzarra ere egin zuen urriaren 1ean.



ARGAZKIA: AITOR

Ortzegun honetan, urriaren 16an, 18:30etan egingen da Zarandia Karrikan, elizako bidean dagoen udal tanatorio berriaren inaugurazio ofiziala. Udal agintariak eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak izanen dira ekitaldian.

KIROLA

Zazpigarren paleta goma txapelketa antolatu du Batzoki Elkartek

Bertze urte batez, Lesakako paleta goma txapelketa antolatu behar du Batzoki Elkartek, Udalaren laguntzaz. Aurten zazpigarren edizioa jokatu da eta lehengo urtean bezala, bi maila izanen ditu. Lehenengo maila Diario Vasco Saria izanen da eta bigarren mailak Rural Kutxa Saria izena hartuko du.

Izen emateko epea urriaren 1ean ireki da eta 30ean akautuko da, 948 627 522 edo 686 759 341 telefonoetara deituz eta Laura-taz galdetuz. Txapelketan izen ematen duten lehenengo hogeikoteek hartuko dute parte. Kopuru hau betetzerakoan ez da izen emateko aukerarik izanen. Bosna bikoteko lau talde sortu-

FLASH

San Fermin elkartearen eguna

Urriaren 26an bere eguna ospatuko du San Fermin erretiratuen elkar-teak. 11:30etan aurten hildako bazkideen aldeko meza izanen dute. 14:00etan bazkaria erretiratuen egoitzan. Bazkal ondoan, aurtengo txapelketa eta ekitaldi ezberdinetako irabazleei sariak emanen zaizkie. Gero, dantzaldia izanen dute. Txartelak 24 eurotan salgai daude elkartearen ostatuan eta urriaren 19a baino lehen hartu behar dira. Bazkideen laguntzaile joaten direnek 27 euro ordainduko dute.

Xabi Zozaia txapeldun

Xabi Zozaia herriko palistak eta Aurizberriko Erburuk irabazi dute San Fermin Txikiko pala motzeko txapelketa. Urriaren 3an, 40-37 irabazi zieten finalean Muñoz eta Txikiri.

ko dira eta talde bakoitzean ligaxka jokatu da hurrengo fasera nor pasatuko den erabakitzeko. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek Diario Vasco Saria jokatu dute eta hirugarrenak eta laugarrenak Rural Kutxa Saria. Bigarren fasean sistema kanporagarria erabiliko da. Txapelketa azaroaren 15ean hasiko da. Partiduak larunbatero arratsaldean eta igandero goizean udal pilotalekuan jokatu dira.

GLORIA ARIZTEGUI HUARTE

ARKITEKTOA

Tel. LESAKA: 948 63 70 68

Mug: 635 75 77 32

e-mail: aariztegui@arquired.es

IGEL ARKITEKTURA BULEGOA · ETXERAKUNTZA · HIRIGINTZA · ZAHARBERRITZEA

POKOPANDEGI BIDEA 9, 3. 20018 DONOSTI

FAX-TEL: 943 32 20 65

ETXALAR

Igande honetan ospatuko da Usategietako Igandea

Martxan dira dagoeneko Udazkeneko Kultur egunak

Joseba eta Nerea

Ekitaldi andana antolatu da herrian aste-buru honetarako. Usategietako Igandearen aitzakian, "gazte eta gazte sentitzen direnen afaria" antolatu dute gazteek eta dagoeneko afariko txartel guzaki saldu dira. Honen aitzinetik, Kultur Egunen barrenean, Euskara Batzordeak antolaturiko antzerkia ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean. Igandean berriz, urtero bezala, usazaleen eguna ospatuko da, Usategietako Igandea. Urriko hirugarren igandea aurtengoan ere besta eguna izanen da herrian eta goizean jende aunitz biltzea espero da larmendi inguruan. Eguraldiak laguntzen badu bederen, herritar nahiz kanpotik etorritako turista olde handia bilduko da

usazaleen lana ikustera eta Altxata elkarteak talo postua paratuko duela bertan jakinarazi digute. Arratsaldean berriz, dantzaldia izanen da 6etatik aitzinera Sunbillako Jalisko Band taldearekin. Hauen atsedendaldian, herriko dantzari eta pilotarien aldeko zozketa egingen da. Beti bezala, 12 uso bizirik emanen dira lehenbiziko sarian, Ttipi-Ttapa Telebistako bideo sorta bat bigarrenaren eta herriko bestatan aizkora erakustaldian eginiko egurrezko irudiak hirugarren saritzat. Azkeneko urtetan bezala, Andre Mari dantza taldeko kideek ostatua paratuko dute frontoian.

Udazkeneko Kultur Egunak

Martxan dira dagoeneko urtero data haue-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Dantza irakasle bila

Dudarik ez da herriko bestetako Andra Mari egunean denei gustatzen zai-gula meza ondotik Andre Mari dantza taldearen saioa ikustea. Baina egun horretan ordu bat inguru irauten duen saioa prestatzeak ikaragarritzko lana du. Urte osoan aritzen dira irakasle eta ikasleak lanean gelditu gabe. Baina azkeneko urtetan ibili diren irakasleak aurten segituko ez dutela jakinarazi dute eta irakasle berriak hasteko deialdia egin nahi izan dute. Norbait interesatua baldin badago herriko haurrei dantzak erakusteko, beraingana jo-tzea bertzerik ez du eta eurek emanen dizkiete behar diren argibideak.

tan egiten diren kultur egunak. Asteazken honetan egin zen lehenbiziko ekitaldia. "Pastel Magikoa" izeneko pelikula eman zen Kultur Etxean eta ondoko egunetarako ere hainbatekitaldi prest daude. Larunbat honetan erraterako, helduentzako antzerkia izanen da Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik. "Euskara sencilloaren manifestoa" izenburupean egingen dute Kultur Etxe-

an arratsaldeko zazpietatik aitzin. Heldu den astelehenean, urriak 20, Elikadura Tailerraren lehenbiziko jardunaldia egingen da dietetikan diplomaturako Josune Txoperenalesakarreren eskutik. Kultur etxean izanen da ilunabarreko zortzietan. Eta hurrengo astelehenan egingen da bigarren jardunaldia, ordu berean eta leku berean. Hurrengo ortzira-lean, urriak 24, Azkain-go Azika taldeak "Kon-

tu Konta zan" txotxongilo saioa eskainiko dute Kultur Etxean arratsaldeko sei etan. Eta aurtengo Kultur Egune-ko azkeneko ekitaldia azaroaren 1ean egingen da Herriko Ostatuan. Kantu afaria izanen da Aire ahizpekin eta joan nahi dutenak Landaburua dendan, Herriko Ostatuan edo Euskara Batzordeko kideengana joz lortu ditzake txartelak. 15 eurotan paratu dira salgai.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel.- Fax: 948. 63 10 27

LOBEKO

Lore eta landareak

Frain auzoa - LESAKA

Tfnoa: 948 637826

Deñe

LENTZERIA

MERTZERIA

Tfnoa: 948 627 514

Beheko Plaza 8, LESAKA

Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri I • BERA • Tel eta Faxes: 948 631169

HERRIKO

OSTATU - JATETxea

Arzaketa 10 • 31780 BERA

Plaza • NAFARROA

IGANTZI

Giro onean, arazorik gabe, joan dira aurtengo bestak

“Itturixar” itturria moldatu dute auzolanean berrizaundarrek

Oskar TXOPERENA

Larunbat arratsean hasi eta igandez ere egin zuen euria, baina gainerakoan ia egitarau osoa betetzeko moduko eguraldia egin du aurtengo bestetan. Egun nagusian, San Miguel egunean, bikaina. Bertzalde, beste gainetik begirada bat emanez gero, San Miguel hauetan egunez gaez baino jende gehiago ibili dela ematen du, hori da behinik behin jendearen ahotan sumatu dugun komentarioa. Kontu hau herri gehienetako udako bestetan ere gertatu omen da. Gainerakoan, bizpahiru berrikuntza zeuden lehengo urteetako bestekin alderatuz: Aeromodelismo erakustaldia –euriak itsustu zuen igande goizeko ekitaldia-, bertso-pilota saioa –aski polita izan zena- eta betizuen itzuleraren egitaraua –jende aunitz ikusten, ez hain berte betizuen aitzinean-. Haurren egunean aparrik izan duen arra-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Arratsalde ederra pasarazi zigun talde honek bestetako herri kirol saioan. Ez zuten inolako kirol markarik hautsi izanen, baina ez die inork ukatuko gogoz aritu izana. Ezbairik gabe bestetako tarterik hobenetakoa izan zen.

kasta ikusita, egitarauan finkatutzat ematen ahal da. Eta azkenerako utzi ditugu jende gehien bildu dituzten ekitaldiak: herri kirolak eta dantza taldearen saioa. Larunbat arratsalde izan zen lehenbizikoa eta zer jende pila bildu zen plazan! Nafarroako koxkor biltaileen txapelketa eta ondotik herriko 21 gaz-

tek erakustaldi zoragarria eskaini zuten, soinean Luis Mari eta Miguel Angelen argazkiak zituztela. Dantza taldearen saioa ere igande arratsean jendearen hagitx gustokoa izan zen saioan ikusteko aukera izan genuen, eszenatoki eta argiarekin egingutako muntai bereziarekin. Hagitz polita.

Ikastaroak

Urteroko ikastaroak hasiak dira edo hasteko puntuan daude. Eskulanetan hasiak dira, Udalak antolatuta. Soinketa edo gimnasian hasteko ere ari dira taldea antolatzen. Haurrei dagokionez, solfeo, korala eta instrumentuen ikastaroak hasiak dira eta pilotan ere ari dira.

FLASH



Itturixar

Berrizaun inguruko trenbidean ibiltzen direnek ongi ezagutuko dute Zeruneta baino lehenago dagoen itturria. “Itturixar” deitzen diote auzotarrek eta dugu gaur egun ez du antzik ere orain dela gutti arte ezagutu dugunarekin. Egoera penagarrian zegoen eta berrizaundarrek moldatu egin dute auzolanean, Herriko Etxeak materiala emanda. Zeinen ongi gelditu den ikustea merezi du.




Kanalean obrak

Berrizaunen jarraituz, bazen aspalditik N-121 errepidearen gaineko aldeko belaigaietan, Ola-etxeberriko parean, zulo handi bat. Lurrazpitik pasatzen den zentral elektriko handiaren kanala omen zen nonbait xehetua, eta aitzineko egun hauetan aritu dira konpontzen. Ondoan ageri den bordari Zakariasen borda deitzen zizaien denbora batean.

Pilotariak

Bestetan jokatu zituzten gure pilotariak Herriko V. Txapelketaren finalak eta atsedean hartzeko astirik gabe, bertze bi txapelketetan ari dira orain jokatzeko: Burlatakoan borts bikote eta urriaren 11n hasitako Bortzirietako III. Txapelketan hamasei pilotari.

ZUBIONDO JATETXEA



Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763



BORTZIRI
UNSION ANAIAK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891

Faxa: 948 637 511

ARANTZA

Eskolako ikasleak irratiko esatari lanean izanen ditugu aste honetan

Udazkeneko kulturaldiaren haizeak somatzen dira

Nerea ALTZURI

Ikasturtea hasiz geroztik, hilabete bat eta erdi pasatu da eta eskolan burubelarri ari dira ikasten. Ikasgela barrenean, entzuten, idazten eta ikasten diren ikasgaiekin batera, bertze batzuk ere aurrikusten dituzte ikasturte barrenean, beti bezala.

Aste honetan bertan, irratigintza lantzen ari dira eskolako irakasle eta ikasleak. Egia erran, ez da lehendabiziko urtea Xorroxin Irratiak irratia eskola ibiltariaren ikasturte aintzina era ematen duela. Herriko eskolan ere, ez da estreineko aldia Xorroxin lagunaren bisita izaten dutela. Aste honetan Xorroxin Irratiak irratia eskolako ikasturteari hasiera eman dio eta iaz bezala, aranztar gazte-
txoek irratiko tresneri eta ahotsak hartu dituzte Xorroxinen lehenengo pausaldian. HerriZ herri ikastetxe ia gehienetan irratia mugikorra ekaine-



ARTXIBOKOA

Eskola barrenean nahiz eskolatik kanpo hainbat ekitaldi burutuko dituzte datozen asteotan herriko ikasle eta irakasleek: irratsaioak, antzezlanak, Lesakan eginen diren jardunaldietan parte hartu...

ra bitarte ibiltzen da. Ortziralera bitarte goizeko 10:00etatik 12:00etara esatari lana burutzen ari dira, asteazkenean atsedean hartuz. Hirugarren zikloko eta DBHko lagunek hartu dute irratsaioaren gidaritza-rako ardura, astean zehar txandatu, eta lehen

eta bigarren ziklokoek eta Haur Hezkuntzakoek berriz, euren ekarpenak eginen dituzte irratsaioaren zenbait tartetan. Musika, berriak, bertsoak, asmakizunak, errezetak, elkarrizketak, horoskopoa, txisteak, kantak, lehiaketak... zer ez da irratsaioan? Aste

honetan, beraz, 107.9 frekuentzian irratia sin-tonizatuz gero, Arantzako Xorroxin izanen da.

Bertzalde, abendurako antzezlanak ere prestatzen ari dira, urteroko moduan. Inguruko eskolako haurrei erakusteko eta igande arra-

tsalde batean jendaurrean ere taularatzeko.

Azkenik, jakina da urriaren 28an eta 29an ELAIA elkartearen ekimenez, Elikadura eta nutrizioari buruzko jardunaldiak izanen direla Lesakako Zambra aretoan eta bertan parte hartuko dute Arantzako eskolako irakasle eta ikasleak. Goiz-arratsalde izanen dira gai hauei buruzko egonaldi hauek eta eskualdeko ikaste-txeetako haur, irakasle eta guratsoek parte hartuko dute. Bi egun horietarako ere herrikoak prestatzen ari dira. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak goizez joanen dira. Arratsaldetan, berriz, solasaldiak, mahainguruak eta bertzelako ekimenak izanen dira guratsoei zuzenduta. Bertzeak bertze, umeen etxeko zein jantokiko elikaduraren garrantzia goraipatuko da bi egun hauetan, gaian adituak direnen eskutik.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik ortziralera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxe: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitortpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ALBERGEA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BORTZIRIAK

«Jolasaren mamia» ikastaroa antolatu du azarorako Euskara Mankomunitateak

Guraso, irakasle eta begiraleei
zuzendua dago batez ere

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak «Jolasaren mamia» izeneko ikastaroa antolatu du datorren azarorako. Irakaslea Fernando Sáenz de Ugarte izanen da, Urtxintxa Aisialdiko Eskolakoa. Ikastaroaren edukinaren inguruan, batez ere honako gai hauek landuko dira:

jolas handiak edo formatu handikoak; euskal jolasak eta jolas tradizionalak; ipuinak, eta horiek nola dramatizatu; nola egokitu jolasa egoerari, eta egoera jolasari...

Metodologia talde lanean oinarritua dago. Hau da, jolasari buruz solas egin baino lehen, jolasa bizitu egingen da.



ARTXIBOKOA

Jolasak eta ekintza ludikoak antolatzeko baliabideak eskainiko dira.

Talde guztiaren artean egindako jolas bakoitzari buruzko fitxa bat oastuko da, eta, irakasleak emandako alderdi teorikoarekin batera, parte hartzaile bakoitzak dossierra osatuko du.

Egutegiari dagokionez, ikastaroa azaroren

4an hasiko da eta 27an bukatuko; hau da, azaroko astearte eta ortzegun guztietan izanen da, 19:00etatik 21:30etara Berako kiroldegian. Ikastaroan edozeinek parte har dezake, baina bereziki zuzendua dago gurasoentzako le-

henbizi, eta begirale eta irakasleentzako. Gehienez 25 onartuko dira eta izen ematea urriaren 24a baino lehen egin behar da Bortzirietako Euskara Zerbitzura deituz (948 634 125) edo mezua igorritz: bortziriak@euskallnet.net.

euskara
zure laneko
erreminta

Decídete a aprender
euskara

eskorga carretilla

garabia grua

balezta balísta

mihiztadura machimbrea

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Lan Munduko Batzordea

ELGORRIAGA

Onddo eta Zizen Kofradiako ohorezko kide berriak izendatu zituzten urriaren 5ean

Paloma San Basilio kantari espainiarra izan zen horietako bat

ttipi-ttapa

Paloma San Basilio kantaria eta Jesus Marin, Nafarroako Olioaren Kofradiako lehen-dakaria dira Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiako ohorezko kide berriak. Elgorriagako Kofradiaren bederatzi-garren kapitulua egin zen urriaren 5ean eta Marin eta San Basilio izan ziren protagonista nagusiak. Aipatzekoa da bertze ohorezko kide aunitz dituela Onddo eta Zizen Kofradiak: Pedro Osinaga aktorea, Jordi Hurtado telebista aurkezlea, Yolanda Barcina Iruñeko alkatesa, Koteto Ezkurra erre-montelaria edo Migel-txo Saralegi harrijaso-tzailea, bertzeak bertze.

Aurtengo ekitaldian ohorezko kide berriek haritz bana landatu zuten Bostorratz mendian. Azpilkuetan etxea duen Paloma San Basilio gus-tora ageri zen bere izen-dapenarekin.

Baina hauetaz gain, bertze hainbat kofra-diako kideak ere izan zi-ren Elgorriagan; Nafa-rrako Olio, Tafallako Kuto Divino delakoa, To-losako Babarrunena, Tuterako alkatxofa edo Orburuarena, Bidasoa-ko Izokinarena, Getari-ko txakolinarena, Nafa-rrako zainzuriarena,

Santoñako antxoarena edo Iruñeko Napardi el-kartea, bertzeak bertze. Osagai horietako ba-koitza onddoekin das-tatzeko modua izan zen urriaren 5ean.

Eguraldi euritsua eta haizea izan zen eta El-gorriagan leku estali ba-



ARGAZKIA: D. NAVARRA

Onddo eta Zizen Kofradiako kide batzuk, bertze zenbait kofradietakoekin.

ten premia dutela na-barmendu zuen Jose Miguel Galarregi alkate eta Onddo eta Zizen Ko-fradiako lehendakariak.

Izan ere, Meza eta ohorezko kideen izen-dapena elizan egin be-har izan zuten, plateren prestaketa arkupe ba-

tzuetan eta urtero egi-ten den enkantea egin ezinik gelditu ziren, ho-rretarako leku egokirik ez delakoz herrian.



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten dut:

2003ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan egingen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2003ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2003ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez % 20 errekararekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2003ko urriaren 1ean

Presidente, Miguel M^a IRIGOIEN

SUNBILLA

Eliza ondoko eremu batean herriko plaza egin nahi du Udalak

180.000 eurotik goitiko aurrekontua izanen luke

tipi-ttapa

Elizaren ondoan, bi-dearen bertze aldetik dagoen lur eremuan herriko plaza antolatu nahi du Udalak. Gaur egun ez dago plazarik Sunbillan eta arazo hori moldatzeko 2.000 metro koadroko belagi hori erosi zuen Udalak. Orain, proiektuaren borrado-rea prest dago eta Jose Mari Hernandorena alkateak jakinarazi duenez, «lehengo 30 milioi pezeta inguru (180.300

euro) gostako litzateke plaza egitea. Hortaz, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza nahitaezkoa dugu eta hurrengo Hirurteko Planean sartzea espero dugu». Hasierako proiektuaren arabera, plaza inguruan zuhaitzak jarriko lirake eta ugaldere oinezkoendako bidea ere izanen zen: «lau eskalatan banatua dago —dio alkateak—, baina hori dena gero aldatzen ahal da».



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Azkenean udal pilotalekuan egin baldin bazen ere, herri bazkari jendetsua izan zuten urriaren 4an Sunbillan. Jakinen duzueenez, duela urte batzuk saihesbidea ireki zutela ospatzeko Karrika Nagusian bazkaria egin zuten sunbilarrek. Ohitura hori berreskuratu nahi izan dute aurten, baina eguraldiak lagundu ez zuenez, frontoian bildu ziren sunbilar ugari, umore ederrean.

Bertzalde, jakina da Sunbillan etxebizitza aunitz eraikitzen ari direla. 26 adosatuak akitzen ari dira eta familia bakoitzeko bertzeko 23 egi-

tea espero da. Horretaz gain, alkateak jakinarazi duenez, hemendik 3-4 urtera familia bakoitzeko bertzeko 36 etxe eginen dire lehengo Bida-

soako trenaren estazio ondoan. Alkatearen ustez, «horrek uraren arazoa moldatzera behar-tzen gaitu, deposito handiagoa behar dugu».



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



**HERRI OSTATU
GAZTELU**
Gaztelu-Donamaria
Tel. 948 450105
647 043501

- Kinto bestak, ospakizunak, urtebetetzeak...
- Logelak-Gosariak
- Taberna-Terraza
- Parrilla: Haragia, arraina eta barazkiak
- Plater begetarianoak
- Konbinatuak
- Kaxulak...



BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezti karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



TOLDOOS SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
ALFONBRAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...



ERATSUN

Hameka ikaslek hasi dute ikasturte berria

Joan den urtean baino bat
gehiago izanen da Eratsunen

Loli OTXANDORENA

Aurtengo ikasturtean hameka ikasle dira Eratsungo eskolan, joan den urtean baino bat gehiago. Lehengoez gainera, Iturengo eskolan ari ziren bi ikasle etorri zaizkigu: Jasone eta Goizeder Mindegia, eta ikasle bat joan zaigu Doneztebera ikasketekin segitzera: Xabier Jau-

rena.

Plan berria dela eta, ttikienak ere ingelesa ikasten hasi dira. Bestalde, urtero bezala ordenagailuak aprobetxatuz informatika ikasten dute baita ere eskolan. Haurren ikasketak aurrera segitzeko Bittorio Lizarraga Lazkano maisua aritzen da.

Gaur egun denetara




ARGAZKIA: LOLI

Argazkian ageri dira Eratsungo eskolako ikasleak Bittorio Lizarraga irakaslearekin: Alazne, Juan Mari, Goizeder, Mikel, Gaizka, Ibai, Jon, Jasone, Iranzu eta Olaia. Unai Mariezkurrena falta zen, gaixo zegoela eta.

190 bizilagun ditu Eratsunek, hortik 122 gizaseme eta 68 emakume. Eratsungo bizilagunen

arabera nahiko haurbadaude. Herria pila bat alaitzen dute. Asteazkenetan Doneztebera

joaten dira, beste herrietako umeeekin ikastera eta herriak ederki nabaritzen da.



Antolatzailea:



NORENTZAT?

- Gurasoentzat bereziki
- Hezitzaile eta begiratzaileentzat
- Irakasleentzat

NOIZ ETA NON?

- Berako Kiroldegian
 - Azaroko astearte eta ortzegunetan
 - 7:00etatik 9:30era
- HASIERA: Azaroak 4, astearte, 7:00etan.

IZEN EMATEA:

Bortzirietako Euskara Zerbitzua (Arantza)
948 634 125
bortziria@euskalnet.net
Epea: urriaren 13tik 24ra
Prezioa: 30 €

PLAZAOLA

Andoain eta Lekunberri arteko lehen mendi bizikleta ibilaldia egin da

Uitziko tunela berreskuratzea izan zen txirrindularien eskaria

ttipi-ttapa

Irailaren 20an egin zen Plazaolako lehen-dabiziko mendi bizikleta ibilaldia, Andoain eta Lekunberri artean. Ehun txirrindulari baino gehiago elkartu zen, gehienak nafarrak, baina baita Gipuzkoatik etorritakoak ere. Adinari dago-kionez, denetik izan zen: 8 urteko haurrek Leitzatik abiatu eta 15 kilometroko ibilbidea osatu zuten, baina izan ziren 60 urtekoak ere, Andoainetik atera eta 40 kilometroak egin zutenak. Plazaolako Partzuergo Turistikoak antolatua zuen ibilaldi hau, Bide Berdeen Europako Eguna eta Mugikortasunaren Astea zela eta. Gustora zeuden antolatzaileak, lehen urtea izan arren eta deialdia zabaltzeko denbora

gehiagi izan ez badute ere, parte hartze handia izan delako. Gainera, hasierako helburuak bete direla aipatu dute Partzuergotik: Leitzainguruko 12 kilometroko tartean berriki moldatu den Plazaolako bidearen promozioa eta oraindik moldatu gabe dauden zatiak, batez ere Uitziko tunela (2,7 kilometro) egokitzea eskatzea.

Orain arteko moldaketak, bai Lekunberri-Larraun tartean (7 km) eta bai Leitzan (12 km) Espainiako Ingurumen Ministerioak egin ditu. Partzuergoaren asmoa da bi zati horiek elkartzen dituen Uitziko tunela moldatzea, horrela bisitarientzat erakargarriagoa izanen baita Plazaolako Bide Berdea.



ARGAZKIA: PLAZAOLA

Ehun txirrindulari baino gehiagok hartu zuen parte Plazaolako Partzuergoak antolatutako mendi bizikleta ibilaldian. Zailtasun nagusia Uitziko tunela igarotzea izan zuten. Andoain eta Lekunberri arteko bidea erabat moldatze-ko, tunel hau egoitzea bakarrik falta da eta horixe da, hain zuzen, Partzuergoaren asmoa.



BERRAZKUN

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

J. RAMOS

zolak akutxilatzen eta barnizatzen ditut

Phone: 948 631 342 BERA - Phone: 948 637 173 LESABA



Iturlandeta, 6 • © 948 63 02 40 • BERA

DROGUERIA MOLINERO

DROGERIA
LURRINDEGIA
OPARIAK

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal
duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat
prezio berezia

ELIZONDOKO

FERIAK

URRIAREN 24 eta 25ean



Urtero azienda gutiago eta feriante gehiago

- Azienda ikusi bai, baina erosi ez da egiten normalki
- Ferianteek larunbatean egiten dute salmentarik handiena

Elizondoko Ferietara joan nahi dutenek, urriaren 24 eta 25ean izanen dute hitzordua. Udazkeneko Feriaren txanda ailegatu da. Iraileko azken aste hondarrean egin zen lehiaketa eta enkante nazionalan (Espainia) baino azienda buru gutiago ikusiko dira, dudarik gabe. Enkante horretan ordaindu ziren prezioak nekez adostuko dira, feria egu-

nean gero eta bakanago ixten diren tratuetan... baina betiko xarma ez du inoiz galduko udazkeneko feriak. Aziendekin batera, salmenta postuek erosi eta indar gehiago hartu dute. Erraten dutenez, etxekoandreek ortziralean generoa ikusi eta larunbatean erosi egiten dute, gero eta jendetsua den Atsoferien, hain zuzen.



 **Xanti ALDAKO** Elizondoko kargodune eta Baztango Udalean zinegotzi

«Bi salmenta egun eskaintzen ditugu Elizondon eta garestiagoa da postuen prezioa»

Hamar urte darma-
mazki Xanti Aldakok
Elizondoko kargodun
eta azken hamarkada
honetan bera izan da
Udazkeneko Feriaren
antolaketan buru-bela-
rri aritu dena. Aurten,
gainera, udal hautes-
kundeen ondotik Baz-

tango Balleko Etxean
zinegotzi ere bada. Hor-
taz, ferien antolaketan
erreleboa izan nahiko
luke heldu den urtetik
aitziner. Hamar urte-
tan Udazkeneko Ferian
zer aldatu den galde-
tzerakoan ez du zalan-
tza izpirik Aldakok:

«Azienda kopuruak na-
barmen beheiti egin du,
orai guti izaten da, baina
bertzelako gauzak saltze-
ra datorren feriante ko-
puruak goiti egin du, pos-
tu gehiago izaten dira eta
nekazaritzako tresneria
saltzeko ere gehiago ikus-
ten da. Lehen batez ere

mantak eta baratzuriak
saltzen ziren, baina orai
arropa saltzen da gehia-
go».

Erran beharrik ez da
Feria eguna diru-iturri
handia dela Elizondo-
ko herriarendako. Sal-
menta postuak metro-
ka saltzen dira eta le-

hengo pezetatan kon-
tatuta, 2.300.000 eta
2.500.000 pezeta arte-
an hartzen ditu Elizon-
doko Herriak (13.800-
15.000 euro artean).
«Ehun eta hogeitu in-
guru etortzen dira -dio
Aldakok-, urteen ara-
bera aldatzen dira. Urte
batzuetan bueltan bidali
behar izan ditugu saltzai-
leak lekurik ez zegoela-
koz, ezinezkoa zen. Me-
tro lineala 2.500 peze-
tan saltzen da azkeneko
urteetan (15 euro). Aur-
ten alkate-juradua alda-
tu da, baina ez dut uste
prezioa aldatuko denik».

«Espainiako lehiaketa eta enkantea hemen egiteak ez dio deus kentzen Udazkeneko Feriari»

Berriki Espainiako
azienda feria egin da Eli-
zondon, lehiaketa eta
enkantearekin. Udabe-
rriko Feria ere indartzen
ari dira azken urteotan,
baina Xanti Aldakok ez
du uste hauek Udazke-
neko Feria, «betikoa»,
ahulduko dutenik. «Ni-
re ustez guztiz bateraga-
rriak dira. Bistan da le-
hengo eguneko azienda
lehiaketa eta enkantea
maila handikoa zela, na-
zionala zen eta azienda
ederrak etorri ziren, bai-
na horrek ez dio deus ken-
tzen udazkeneko feriari.
Nik dakidala lehenbiziko
aldia da hemen Espainia
osorako lehiaketa eta en-
kantea egin direla, kate-
goria arras-arras handi-
koa da hori. Gainera, an-

EUSKAL

BASERRIAREN

ZERBITZURA


Albaitaritza

948 580 980


ALBAIKIDE

S.A.

902 169 169

ALBAITARI ZERBITZUA

MERKATARITZA: Botika · Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea · Xaboi eta desinfektatzaileak
Materiala · Hazi · Nitrogenoa · MVE Garrafak



Ortiziraleko azienda feria egunera jende aunitz hurbiltzen da, aziendak ikusi eta tarteka traturen bat egitera. Bertzelako salmenta postuek, ordea, larunbatean gehiago saltzen dute.

tolatzaileak gustora zeuden lekuarekin eta abeltzainak ere kontent antolaketarekin, ez omen dute inon hemen hainako prestakuntzarik ikusi».

Postuen zozketa ortzegunean

Urriaren 24 eta 25eko feriari dagokionez, ez da aldaketa handirik izanen egitarauan: Ortziral arratsaldean profesionalen arteko pilota partidua izanen da eta seguruenik Mikel Goñi jokoan ikusteko aukera izanen da. Baina Xanti Aldakoren erranetan, bezperan, ortzegunean izaten da lanik handiena, postuak saltzen eta bakoitza be-

re lekuan kokatzen: «Arratsaldeko 4etan zozketa egiten da eta karrikan bakoitzari bere lekua markatzen diogu eta saltzaileek hartu egiten dute. Gaueko 10etan aunitz ez duzu akitu oraindik. Ortiziralean, bezperan ailegatu ez direnei libre dauden postuak ematen zaizkie. Goizeko 8etan Balleko Etxeko atarian gelditu eta libre dauden lekuetan kokatu, baldin badaude noski. Gero, postu postu joaten gara Martin Legarrea eta biok, eta saltzaileei txartela eskatzen diegu. Aldi berean, hurrengo urterako kroki sa egiten dugu. Izan ere, orai, aitzineko urtean etorri dena, leku berean kokatzen dugu. Guretako

errexago da eta eurek ere badakite non jarri. Horregatik bi enkante egiten dira, bat aitzineko urteetan etorri direnendako eta bertzea lehendabiziko urte dutenendako».

Metroko 2.500 pezetan ordaintzea bertze lekuetan baino garestiagoa da, baina kontuan hartu behar da salmentarako bi egun izaten direla Elizondon: «Ortiziralean zerbait saltzen da eta azienda feriatan xarma hor duzu, baina salmentarik handienak larunbatean egiten dira, etxekoandreak orduan etortzen dira erosketak egitera, postuetan ortzirallean baino hagitzek jende gehiago mugitzen da larunbatean». ■



- Sistema informatikoen muntaia, salmenta eta moldaketa
- Industri analisia eta mantenua
- Asistentzia teknikorako zerbitzua
- Sare lokalak
- Web orrien diseinua
- Jendearendako eta enpresendako formakuntza ikastaroak

Giltxaurdi, 17 • ELIZONDO
 ☎ 948 58 06 53 - 649 56 14 01

ARKUPE
 30x07egi • kafetegia

Tarta bereziak
Etxeko izozkiak

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021
 ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393

«La Baztanesa, S.A.»

AUTOBUS ENPRESA

Eguneroko eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago 25 • ☎ 948 580129 • ELIZONDO

ZUNZARREN

ARTEKARITZA

- Aseguruak
- Autoen Matrikulazioak
- Gida Baimenen Berritzeak eta
- Garraiolariendako Ikastaroak

BIDAI AGENTZIA

☎ 948 45 22 93 • AMAIUR GAZTELUA 2 • ELIZONDO

GOIZ-ALDE OSTATVA

*Aukera zabala
 kaxula, bokata
 eta pintxotan*



Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO
 ☎ 948 581 334

Ehundaka buru aurkeztu ziren Elizondon Piriniotako behi eta latxa arrazako ardien lehiaketa-enkantera

Hamaseigarren aldia betetzen zuen behi azienda lehiaketak eta bigarrena ardi aziendarenak

Irailaren 27 eta 28an Piriniotako behi-arrazako aukerako hamaseigarren azienda lehiaketa eta enkante nazionala eta latxa arrazako bigarren azienda lehiaketa eta enkante nazionala egin ziren Elizondon. Baztango Udala, Nafarroako Gobernua, ASLANA eta ASPINA elkarteak, Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa eta Nafarroako Kutxa izan ziren ekitaldi honetako antolatzaileak.

Ardi enkanterako, 19 lote aurkeztu ziren, 150 ardi buru, eta ardi lehiaketara 30 lote, 160 buru. Behi enkanterako 83 buru aurkeztu ziren eta behi lehiaketarako 352 buru. Larunbatean, goizez azienda sartzea egin zen eta arratsaldean, azienda aztertea eta sailkatzea. Igandean, goizez artisau produktuen azoka egin zen. Nafarroako modua ere izan zen. Eguerdi aldean azienda enkantea burutu zen. Bertan izan zi-

Baztango Udala, Nafarroako Gobernua, Aslana eta Aspina elkarteak, Espainiako Arrantza eta Elikadura Ministerioa eta Nafarroako Kutxa ziren antolatzaileak.

ren Virginia Aleman Baztango alkatesa, Javier Etxarte Nafarroako Gobernuako Nekazaritza eta Abeltzaintza kontseilaria eta Francisco Iribarre, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria. Aipatzekoa da Sabaizan hazitako zezen batengatik 3.000 euro ordaindu zirela, lehengo milioi erdi pezeta. Enkante honetan parte hartzera Kastellon,

Teruel, Valentzia, Kantabria eta Euskal Herriko bertze herrialdeetatik hurbildutako azienda tratanteek parte hartu zuten eta enkantera ateratako azien den %90 saldu zen. Orreagatik etorri zen urtebeteko miga baten gatik 1.382 euro eskatu ziren hasieran eta 1.635 euro ordaindu ziren azkenean.

Sei sari nagusi Legasako Indart anaientzat

Eguerdiko 2etan sari banaketa egin zen. Ondoren ASPINA elkarteak aretxe bat zozketatu zuen.

Sariei dagokienez, Piriniotako behi aziendatan Legasako Indart anaia izan ziren sari gehien eraman zituztenak, sei guzira. Lehenbiziko sariak eskuratu

zituzten 2 eta 4 urte arteko zezenetan, 2 eta 3 urte arteko bigatan eta 3 eta 5 urte arteko, 5 eta 8 urte arteko eta 8 urtetik goitiko behietan. Gainera, hazitarako zezen onenari emandako saria irabazi zuten legasarrekin. 2 eta 4 urte arteko zezenetan bigarren saria Juan Maiorak sakeleratu zuen eta hirugarren saria Carlos Orozek.



BERRO-BIDE

Traktore eta nekazal tresneriaren konponketa eta salmenta

© 948 453425
ARIZKUN



FANTXIKE
Mertzaria - Opariak - Lentzeria
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA
Jaime Urutia 15, ELIZONDO - Tlf: 948 580 312

Gartzaingo Landa-koako Jokin Ramirezek jaso zuen Baztango Abeltzainik Onenari emandako saria, baita urtebete eta bi urte arteko xexenko onenaren saria. Urtebete arteko haragitako xexenkoe-tan Juan Maiorak aurkeztutakoa izan zen onena, bigarren saria Iñiguez anaientzat izan zen eta hirugarrena Maria Isabel Ibarrolarentzat.

Lau urtetik goitiko zezen onena Ezkarozko Andres Hualdek aurkeztutakoa izan zen eta bigarren saria Iñiguez anaientzat izan zen. Bi urte arteko migen artean lehen saria Irungo Antonio Agirrebarrenak etxeratu zuen. Behi ama onena Larraintzargo Placida Iñarreak plazaratutakoa izan zen, behi zaharrenari emandako saria Artzibar-Hiriberriko Carlos Oroz abeltzainak eskuratu zuen. Behi aziendetan aurkeztutako loterik onena, Abadiño (Bizkaia) Leonardo Garatek eramandakoa izan zen.

Burutaingo Miguel Villanuevak aurkeztutako azienda bati eman zioten buru onenaren saria. Miguel Villanue-



va bera saritu zuten Urteko Abeltzaina tituluarekin.

Latxa arrazako ardi buru-gorriak eta muturbeltzak

Baina behi aziendez gain ardi azienda ere pilaka ikusi zen Elizondoko Merkatu Plaza eta pilota plazaren inguruan. Bi kategoriatan banatu ziren ardi loteak, buru-gorriak eta muturbeltzak, beti ere latxa arrazakoak.

Urtebete baino guttiago zuten bortz bildotsen lote onena Patxi Zalbak aurkeztutakoa izan zen; urtebete baino gehiagoko lotea Cenoz anaietako batek aurkeztutakoa izan zen. Zikirorik onenaren saria Jesus Mari Legazen buru batek eraman zuen eta bigarren saria Berro auzoko Etxetxipiako Esteban Urrutia elizondarraren zikiro batenzat izan zen.

Burugorritan, urtebete baino guttiagoko bortz bildotsen lote onena Antonio Huarterena izan zen eta artzain berak eraman zue sail honetako ahari onenaren saria.

CRIS
Ileapaindegia

Ongi pasa
ferietan

© 948 580025
Giltxaurdi, 16
ELIZONDO

tipi
ttapa
7.000 harpidedun
23.000 irakurle



**ESKAILEREN
FABRIKAZIOA
eta KOLOKAZIOA**

Material motak:

- Haritza
- Sapelly
- Iroko
- Elondo
- Pinua



Ventas Auzoa 27 (Landetxa) • 20305 IRUN
Tel: 943 628171 • Faxe: 943 632660 • e-mail: hoppe@euskalnet.net

👉 **Oianko GARDE** Gartzaiingo gaztea

«Bizitza soziala egiteko egun polita da Elizondoko feria, aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzeko zara»

Lehendik ere Baztanen aski neska ezaguna baldin bazen ere, Euskal Telebistako Basetxea programan famatu zen Oianko Garde gartzaindarra. Baina foko eta mikrofonoetatik urrun, Elizondoko feria herrian pasatzen ditu. Hori bai, auzitza lanean aritzea suertatu zaio: «Zoritzarrez ostalaritzan hainbete urte aritu naizenez, ostaltuan aritzea suertatu zait. Baina goizez postuetan ikustea auzitza gustatzen zait. Lagunekin gelditu, gosari on bat egin, trago batzuk hartu eta

nola ez, regateoaren bitartez zerbait erosi behar da, hori polita da. Behin danbor batzuk arras politak ikusi nituen baina ez nuen erosteko asmorik. Tipoa hasi zitzaidan erregateatzen niri, zortzi milatan hasi eta lau milatan eskaini zidan... azkenean erran nion, «ekar-tzu!» eta nire danborrarekin martxa».

Beraz, eguneko eta gaueko feria ongi ezagutzen ditu Oiankok. «Egunean disfrutatzeko arras berrak polita da Elizondoko feria, postu pile bat izaten da». Zerbait nabarman-

tzekotan, sortzen den giroa eta etortzen den jende pila azpimarratzen ditu Oiankok. «Sozialki bizia egiteko polita da, jende pila ikusten duzu... Zurekin ikasi duen jendearekin elkartzeko zara, aspaldi ikusi ez duzun jendearekin, denak han elkartzeko gara».

Egun horretan zerbait gehitzekotan, arratsean kontzerturen bat proposatzen du Oiankok, arratsean ere parrandan segitzeko. «Baina ongi daude dauden bezala, ni ez naiz inor ferietako ja aldatzeko!».



Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Braulio Iriarte ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

e-posta: antxitonea@terra.es
www.antxitonea.com

Ferietako Menu Berezia

Entremes bariatuak

Garbantzuak

Legatza erromatar erara

Aretxe borobila saltsan

Euskal Pastela

Mahats xuria

Kafea, kopa eta puroa

Feria onak pasatu!



AITZINETIK
PRESTATUTAKO
JANARIAK



Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan KONGELATUAK ➡ • Albondigak

• Urdaiazpiko, oilasko, piper eta arraultze kroketak

Jaime Urrutia 35 - © 948 58 01 28 • ELIZONDO



ELIZETXE

**Materiale
elektrikoaren
salmenta**

Jaime Urrutia 8 • ELIZONDO
© 948 581261 - Fax: 948 452397
elicitxe1@terra.es



IPARLA KIROLAK

- Kirolak orokorki
- Ekipamenduak

Santiago 51 • ☎ 948 580585 • ELIZONDO

SANSIÑENA GARAGEA

Tel. eta Fax: 948 580 406 • ELIZONDO



CITRÖEN Zerbitzu Ofiziala

- Mekanika tailerra
- Kotxe konponketa
- Bigarren eskuko kotxeak



Zerbitzu Ofiziala

- Agria eta New Holland traktoreak
- Erabilitako nekazal tresneria

MARTIN ARRAZTOA

- Bizikleta, Moto eta motozerra salmenta
- STHIL motozerra eta desbrozadora agentzia

Santiago, ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 137

JULI
ostatu
jatetxea

*Ongi pasa
feriak!*

☎ 948 580 288
Giltxaurdi 4
ELIZONDO

ferreteria
Quevedo

Santiago 31 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 58 02 34



haragia
xehatzeko
makinak

**FERRETERIA
BAZTAN**

Pintura
Aroztegiko gauzak
Kristalak
Erremintak
Opariak

Jaime Urrutia, 20
ELIZONDO
Tel: 948 580 423

**Pedro
GARMENDIA**

Zerbitzu Estazioa

- Gasolina eta Gasoila
- Garbiketa presioan
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta

Tfnoa: 948 580 309 • ELIZONDO

 **Mari Karmen IRUNGARAI** *Xorroxin Irratiko esataria*

«Ez naiz sobera feria zalea, postuetan baino aise kalitate hobia eskaintzen dute bertako komertzioek»

Xorroxin Irratiko lanak uzten dion tartean, feria ikustea gustatzen zaio Mari Karmen Irungarai azpilkuetarrari, baina sobera feria zalea ez dela onartzen du: «Urriko feria egunak, aspalditik errotuak dauden egunak dira, nik lasai pasatzen ditut. Egunean be-
rean, ortzilerian, goizez lan egiten dut Xorroxinen programa berexia eginez, lankideekin batera, kanpoko giroa, elkarriketak

eta bertze zuzenean eskainiz. Gero, Merkatu zelaian bueltatxo bat ematea gustatzen zait eguerdi partean, aziendak ikusi nahian batez ere. Aspaldiko urtetan etortzen diren asto koadrila harri-garriak ikustea gustatzen zait. (lau hankakoak)».

Arratsaldean, feria ikustea gustatzen zaio Mari Karmeni, baina ez du deus erosteko ohiturarik: «Trankilaski, gero etxean bazkaltzen dut

eta arratsaldean dauden postuak ikusten saiatzen naiz. Denetatikizaten da, horixe bai, deus erosi gabe bueltatzen naiz etxera, beharbada detailetxoren bat, baina deus gogorrik ez». Izan ere, kalitate eskaseko produktuak eskaintzen direla uste du: «Ez zait gustatzen erostea. Iruditzen zait, orokorrean, dagoenak ez duela kalitaterik, bertako komertzioek al-diz, kalitatea bai segur-



tatua dutela: arropak, oinetakoak, erramientak, gozokiak... Dena den, kontsumitzaileentzat aukera polita da, bakoitzak nahi duena egin dezan. Nekagarria izaten da buelta eta buelta ibiltzea, pasabide estuetatik ezin pasatuz, batekin eta bertzearekin bulkaka eta bulkaka!».

Atsoferiea izaten da

biharamonean, larunbatean. Ohitura omen da ortzilerian ikusi eta larunbatean tratua egin eta erosteko. «Nik aldiz, larunbatean ere ez dut erosten». Zerbait aldatzekotan, bertako barazki eta produktuen azoka bat faltan somatzen du Mari Karmenek, Berako Lurraren Egunaren gisakoa edo.



**INTZA
OSTATUA**
Jaime Urrutia
948 580 417
ELIZONDO

GOÑI
HARATEGIA
Feria onak pasa!
Santiago karrika • ☎ 948 580164
ELIZONDO




Jaime Urrutia 26 • ELIZONDO • ☎ 948 580 257

**peluqueria
BICLAM**
C/ Braulio Iñarte • ELIZONDO
☎ 948 581 874



Asteartetik ortzegunera
9:00-13:30 eta 15:30-19:30
Ortzirala 9:00-19:30
Larunbata 8:00-18:00

Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia



Gozotegia
Santiago, 15 • ☎ 948 580061 • ELIZONDO



Zure
edertasuna
nabarmendu
ezazu,
Noa
lurrindegia
eta estetika
zentroaren
laguntzaz

Santiago 15 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 969



BAZTANgo UDALA

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2003ko urriaren 23an

Lekaroz	09:00-09:30	Karriketan barna
Gartzain	09:40-10:00	Karriketan barna
Irurita	10:10-11:00	Karriketan barna
Ziga	11:15-11:35	Karriketan barna
Aniz	11:40-12:00	Karriketan barna
Berroeta	12:10-12:40	Karriketan barna
Almandoz	12:50-13:20	Karriketan barna
Ornoz	13:30-14:00	Karriketan barna
Arraioz	14:10-14:30	Karriketan barna

☎ 948 580 006 • Baztango Udala

**BIDEGAIN
ARRAINDEGIA**

Jaime Urrutia 22 - Tel: 948 580496
ELIZONDO

Amezitia 7 - Tel: 948 456188
DONEZTEBE



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

Jaimerena

ileapaindegi
mistoa

Estetika

Solarium

*Estetika eta
ileapaindegiko
produktuen
salmenta*

*Aurpegirako
kremak,
makilajea...*

© 948 58 12 73
Santiago, 19
ELIZONDO

**NAFAR
PRESS**

LIBURUDENDA

*Prentsa, aldizkariak,
eskola eta bulego
materiala*

Jaime Urrutia 43 • ☎ 948
580902 • ELIZONDO

ZERGALAN
aholkularitza

Prolongación Braulio Iriarte, 8 Behea
31700 Elizondo
Tfnoa./Faxe: 948 58 13 00
e-posta: zergalan@ugaldea.com

BETIZV
ALBAITARITZA ZERBITZVAK

- ★ **Produktu zoosanitarioak**
- ★ **Pentsuak**
- ★ **Aziendendako tresneria**

☎ 948 580 230 - Santiago 62 - ELIZONDO

Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala

- *Fiskala*
- *Kontablea*
- *Laborala*
- *Autonomoak*
- *Enpresa berriak sortzea*

BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

Sukalde, logela,
jangela eta
egongelarako
mobleak haritz,
gaztain eta
gerezian eginak

N-121-B errepidea, 54 km. • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA

BAZTAN • MALERREKA • BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA

Leon berria



MEKANIKA

ELEKTRIZITATEA

GASEN AZTERTZAILEA

ITVrako PRESTAKUNTZA


DIREKZIOAREN ZUZENKETA

ORDENADORE BIDEZ

Tailerrak: ELIZONDOKo sarreran
Telefonoa: 948 58 02 25

SEAT

DATUCELAY



zeramikak




teilak



tximiniak



**ALMACO
BAZTAN**



zeramikak



velux-ak



BELLOTA

**etxegintza eta
saneamendu
materialak**

© 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

RENAULT

PEDRO GARMENDIA, S.A.

TFNOAK: 948 58 04 31 - 58 04 36 - FAX: 948 58 09 73 •
ELIZONDO

RENAULT kontzesionarioa
Frantziarako errepidea z/g • ELIZONDO

MUEBLES AMETS

**Iarunbat
arratsaldetan
irekia**

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Ifnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak
AUKERA HANDIAK



GOIZUETA

Zaharren Egunaren aitzakian kultur ekitaldiak egingen dira herrian

Hilaren 25ean, organo kontzertua izanen da eta 26an X. Lizaso eta Mañukorta

ttipi-ttapa

Umore Ona elkartearen antolakuntzapean urriaren 25ean ospatuko den Zaharren Eguna aitzakitzat hartuta, udala eta kultur taldearen eskutik egingen diren Artea eta Kultura kanpainaren barreneko bi ekitaldi interesgarri izanen dira herrian.

Bietan bereziena seguru aski, urriaren 25ean, larunbatean, 20:00etan elizan emanen den organo eta txistua kontzertua izanen da. Organo jolea Azpeitiko Udal Musika Bandako zuzendaria den Franzesena jauna izanen da eta txistula-



ARGAZKIA: PILI Z.

Argazkian ageri diren neska-mutiko hauek, eskolako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak, hasiera ezin hobea eman diote aurtengo ikasturteari, Cederna-Garalurek antolatutako programa batean parte hartzeagatik lortutako sariari esker Galiziako lurak bisitatzeko aukera izan baitute estatu osoko beste hainbat ikaslerekin batera. Bidenabarkoan esan, 81 ikasle izanen dituela aurtengo kurtsoan Andrez NARBARTÉ «Xalto» eskolak.

ria, banda bereko musikari bat.

Biharamonean, Xebastian Lizaso eta Mañukorta bertsolariak etorriko dira herrira egun guzira. Bazkal aurretik, elkarteko balkoitik saio bat eskainiko dute, eta ondoren, Umore Ona gainezka beteko duten 65 urtetik goitiko herriarrek bazkalduko dute. Handik aurrera bertso guztiak hauek eskainiak izanen dira.

ARESO

29.800 euro lortu dira ehiza postuen enkantean

Joan den urtean baino 6.000 euro gehiago dira

Juana Mari SAIZAR

Ehiza postuko bideak konpondu dira eta su-bastan 29.800 euroko dirutza lortu da, iaz baino 6.000 euro gehiago. Kotoa berritu dute, hamar urterako eta Leitzakoarekin batera, bat egin dute.

ETBko igandeko meza Aresoko elizatik

Euskal Telebistako igandeko mezak herriko parrokiatik botako dituzte urriaren 26an eta azaroaren 1 eta 2an. Grabatzeko egunak,



ARTXIBOKOA

Matxain errekan, Zubiberrietako parean paretak egin dira uda honetan eta Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu lanak.

egun horien bezperan izango dira, oraindik zehaztu gabeko ordutegian.

Pareta Zubiberrietan

Udara aldean Matxain errekan Zubibe-

rietako parean paretak egin dira eta Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu obrak.

LEITZA

Iriscom empresa berezia jarri dute Patxi Arrazola auzoan

Begiaren mugimenduaren bidez ordenagailua erabiltzeko aukera ematen du

Mikel ILLARREGI

Aurreko Ttipi-Ttapan, erdialdeko Lurra gehigarrian, "Begiaren mugimendu soilaren bidez ordenadorea erabiltzeko aukera" izenburupean azaldu zen artikuluari buruz aipamen bat edo beste egin nahi dugu, honek duen garrantzia kontutan hartuz.

Sagua edota teklatura erabiltzeko zailtasunak dituztenei edo ezinezkoa zaienei zuzenduta dago hau. "Esclerosis Lateral Amiotrofi-

ca" delakoa duten gaixoetatik, garun-perlesia (buruko paralisia), parkinsona, tetraplegia, distrofia muskularra eta mugimendua zailtzen duen edozein gaixotasun dituztenetara dago zuzenduta. Begiaren mugimendu soilaren bidez ordenadorea erabiltzeko aukera ematen duen programa bat da. "Quik Glance" izeneko sistema erabiltzen du, begiaren mugimendua segituz funtzionatzen duena. Edozein orde-

nadoretan jarri daiteke eta erabilera oso erraza du.

Pedro Palomo informatikan aditua da, ordenagailu-programa diseinatu duena. Munduan zehar zer dagoen ikusi ondoren, Arizonan dagoen enpresa batekin harremanetan jarri eta azkenean, IRISCOM enpresa sortu du. Enpresa martxan badagore, egoitza nagusia Leitzaan jarriko du, Jose Mari Arrazolak utzitako etxean, Patxi Arrazola



ARGAZKIA: GARA

Sagua edota teklatura erabiltzeko zailtasunak dituztenei edo ezinezkoa zaienei zuzendutako programa egin du Iriscom enpresak.

auzoan hain zuzen.

Ordenadoreetako teknologia berrien aukera guztiak erabili daitezke: idatzi, interneteko hainbat forotan parte hartu, txatean ibili, posta elektronikoa ibili, posta elektronikoa erabili, lagunak egin, mu-

sika aditu,...

Bi programa mota daude; burua mugitzen duen ezinduentzat lehenbizikoa eta inolako mugimendurik ez duentzat bestea. Inolako dirulaguntzarik ez duentzat 4.800 eta 6.000 euro bitartean balio du.

Maxurrenea bizirik

Aspaldi honetan, gai hau askotan aipatzen badugu ere, motiborik ez da falta. Herritarrek, azken manifestazioan emaniko erantzun baikorra kontutan hartuz, antolatzaileek, nolabait, teko jarraipena ematea pentsatu dute. Honetarako, "Maxurrenea herrirentzat" idatzia sinatu zuten herriko talde guztiei gutun bat igorri die, bakoitzak zer proposa dezakeen jakin nahian. Horrela, aukera ezberdinak hartuz, hilean behin, "zerbait" antolatu nahi dute. Honen berri, beste bide batzuen artean, hemendik ere zabalduko dute egitaraua.

Bestaldetik, nahiz hau bidaltzen dugunerrako emaitzen berri ez izan, urriaren 12rako "Alde Hemendik" lelopean

manifestazio bat dago antolatuta herrian. Aldez aurretik idatzi bat bidali zuten herriko talde eta elkartei eta hongoi taldek baino gehiagok azaldu dute bere atxikimendua.

Zinea

Aurreko denboraldiaren balantzea positiboa ez izan arren, hau da, jende gutxi xamar agertu zela, 2003-04 denboraldirako bi taldek animatu dira filmen emanaldiekin jarraitzeko. Pelikulak ikustarazteko bi makina erabiltzen ziren orain arte eta horietako bat-zaharrena hondatu egin da. Beraz, baliabideei dagokionez, aurtengo helburua proiektore berri eta bakar batez funtzionatzea. Bitartean, "atseden" batez ikusi beharko dira fil-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Atakabeltza etxeari zer erabilera eman zain dago herria.

mak. Hala ere, bolondres talde honek jendea animatu nahi du zinera etro dadin eta probetxua atera diezaiogun herriak duen zerbitzu honi.

Emanaldiak, oraindik zehaztu ezin badira ere, Nafarroa Oinezeko astea igaro ondoren hasiko dira. Egungo pelikulak eskainiko dira eta horien artean aipatu, aspaldi honetan hain ospetsu egin den, Mede-

nen "La pelota vasca-Euskal pilota".

Mendi irteera

Urriaren 26an Udala itz mendira egun erdiko irteera antolatuta dago.

Argazki zaharrak behar dira

Aurrera dantza taldeak, 1900-1915. urte bitartean jendeak zer nolako janzkerak erabiltzen zituen jakin asmoz, garai honetako argazkiak bildu nahi ditu. Honetarako argazkiak liburutegira eraman behar dira eta han "eskaneatuko" dituzte, kopia atera alegia. Horregatik argazkiren jabeak momentuan bilduko du berriro argazkia. Orain hasi eta azaroaren 15 arte egin nahi dute bilketa hau.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

• IRAKURLEAK MINTZO •

102 urte

102 urte dira, dagoe-neko, guardia zibila Leitzara etorri zela. 102 urte hauetako balantzea egiten hasiz gero, ezin esan gozoa izan denik. Epe horretan garai historiko ezberdinak bizi baditugu ere, Goardia Zibilaren jokabideari dagokionez, bat eta bakarra izan da beti: errepresioa. Ez dugu besterik ezagutu bere aldetik.

Errepresio eta gordinkeria horren berri eman dezaketenen zerrenda luzea da oso, eta era guztietako erasoak kontatzen dira: atxilotetak, tiroz zaurituak, tortura-tuak, isunak, kontrolak... Ugariak dira Leitzako hainbat herritarrek jasan behar izan dituzten erasoak.

Baina historia luze hau ahaztu gabe, ez baita Nolanahi ahaz litekeena, bereziki salatu nahi dugu azken hilabeteotan gertatzen ari dena, azken hilabeteotako Goardia Zibilaren jarrera: herriko pestetan egun osoko kontrolak, pankartak kentzea,

tortura eta heriotz mehatxuak, pankartak jartze-agatik isunak... Honekin aski ez, eta jendea ere biluztuarazi eta larrugorritan ere jarri dute; zailantzarik gabe, horrelako jokamoldearekin, pertsona eta herria bera umiliatzea eta apaltzea bilatu dute.

Azken hilabeteotan gertatu diren batzuk honako hauek dira:

- Kontrolak herri interetaren nahiz herrian bertan egiten dituzte, festetan eta egun berezietan kontrolak egun osoan zehar jarri dituzte.
- Festetan eta ihauterietan kontroletan gelditutako jendea katxeatu eta biluztarazi zuten, beste kontrol batean leizabat mendira joatera «gonbidatu» zuten. Irailean, goizeko 4:30etan gazte bat kontrolean gelditu eta nahi zutena egin ziezaioketela mehatxatu zuten, ordu erdiz geldiarazi zuten bertan.
- Manifestazioak debekatu dituzte eta manifestazio legalizatuetan okupazio militarra izugarria da.
- Tabernetan mozkor-

tuta eta armatuta ibiltzen dira, bezeroak eta tabernariak probokatzen, armak erakutsiz. Ezin ahaztuko dugu orain bi urte taberna batean metraileta erakusten eta mehatxatzen ibili zirela, bezeroak pistolaz apuntatu zituzten ere.

- Leitzako gazte bati EHNA kendu zioten arrazoirik eman gabe.
 - Euskeraz dauden pankarta eta kartelako kentzen dituzte erabat.
 - Atakabeltza eta Maxurrenea herriarentzat zioen pankarta jartzeagatik multa jarri eta mehatxatu zituzten.
 - 102 urtetan zehar herriaren etxea den Atakabeltza okupatu dute eta orain Maxurrenea herriaren nahia bortxatuz.
 - Herri sarreran eta inguruko trafiko indikadoreak tiroz josiak daude.
- Baina, zoritxarrez, kate honetan ez dago etenik eta azken egunotan ere bide bide beretik dabilta: tabernaz taberna mozkorkeria eta armaturik dabilta, eta, esaterako, irailaren 24an Torrea tabernan 18 guardia zibil egun ziren, bi ordu

eta erdi, mozkorkeria. Maxurrenea etxea okupatu egin dute herriaren nahiaren gainetik pasatuz, Leitzako herriak, behin eta berriz, garden eta garbi, adierazitakoaren gainetik pasatuz.

Argi dago, beraz, herritarrentzat egoera jasan ezina bihurtzen ari dela. Baina ez hori bakarrik, jasan ezina izateaz gainera arriskutsua ere bada, gisa honetako jarraerak erakusten ari diren herriko armaturik baitabilta herrian barna, prepotentzia osoz.

Azaldu dugun hori da, azken batean, Goardia Zibilak Leitzan nahiz Euskal Herri osoan duen ohiko jarrera. Herritarren eskubideen ukazioaren bermea izan dira beti, eta halaxe jarraitzen dute egun ere.

Honenbestez, ASKI DA esan nahi dugu, eta Leitzatik nahiz Euskal Herriko alde egin dezatela eskatu. Urriaren 12an, eskakizun honekin bat egiten duen manifestazioa egin da Leitzan, eta idatzi honen bitartez deialdi horrekin bat egin dezazun dei egiten dizugu.

Erasoak jasan dituzten hainbat herritar.

Manifestazioaren deialdiarekin bat egin dute:

LAB sindikatua, Ama-zabal Guraso Elkartea, Aurrera K.E., Aizan Txirrindulari Taldea, Adus taberna, Orain elkartea, Gaztañaga taberna, Aurrera Dantza Taldea, Leitzako Gazteak, Leitzako Euskaltegia, Leitzar taberna, Etxe-txuria elkartea, Oialde taberna, Leitzako Kultur Taldea, Erleta Eskolako Guraso Elkartea, Musunzar ostalua, Zortziko Labetxea, Euskal Herrian Euskaraz, Karrape Irratia, Aralar, Pilota Eskola, Torrea herrikoa, Mendibil Mendi Taldea, Larrain, Mari Mari Euskara Taldea, Euskara Zerbitzua, Kornietak elkartea, Leitzako Suhiltzaileak, Leitzako Haurtzaindegia, Presoen Lagunak, EHNE, Institutuko Ikasleen Batzarra, Ikasle Abertzaleak, EA eta Landa taberna.



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317


HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaleak	Tximiniak
Angelak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Mazizoa
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**



Maderas GOMEN

- Era guztietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

DONEZTEBE
120 m²ko pisua salgai, 30 m²ko txapitela edo teilatupearekin, baita garaje plaza ere. Prezioaz solastuko dugu.

☎ 666 837228

Baserría edo borda erosiko gendue.

☎ 948 124541

ELBETE
100 m²ko borda salgai, asteburuko aterpe gisara erabiltzeko egokia.

☎ 649 820193 (Manoli)

LEITZA
Basakabi inguruan baserría salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Landaturismorako egokia, Donostiatik 45 minutura eta Iruñetik 45 minutura. Prezioaz solastuko dugu.

☎ 650 355477

BAZTAN

Askapeko bihurgunea moldatzea eskatu du berriz ere Balleko Udalak

Orabideko sarbidea, harrobiko irteera eta errepide nagusia elkartzen dira leku horretan

ttipi-ttapa

Zirkulaziorako arriak kutsua delakoan, N-121B errepidean Askapeko bihurgunea moldatzea eskatu dio berriz ere Balleko Udalak Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuari. Inguru horretan, errepide nagusiko ibilgailuak, Orabideko sarbidea eta harrobiko garrailariak elkartzen dira eta Oronozko tune-laren irteera ere horizantzen da. Gainera, leku suspela denez, neguan oraindik arriskutsuagoa da, horma eta hezetasunarengatik.

Oronoz eta Orabide-Askapeko sarbidea hobetzeko proiektua joan den urtean onartu zen, baina ez dirudi epe laburrean gauzatuko denik. Aurrekontu arazoak dituzte, nonbait, Iruñean eta horrek kezka sortu du Balleko Udale-

an. Florentino Goñi zinegotziaren ustez, inguru horretan trafikoa-ren egoera «arras arriskutsua» da eta neurriak lehenbailehen hartu behar dira. Herrilan Departamentuari lanak lehenbailehen hastea eskatzeaz gain, Alvaro Miranda Zuzendari Nagusiari bilera bat egiteko eskaria egin dio Baztango Udalak.

Elizondo eta Irurita arteko platanondoak

Aspaldian Baztanen solasgai izan dira Elizondo eta Irurita arteko errepide bazterretan dauden platanondoak. Errepidea zabaltzeko moztu edo ez moztu, ez-baika ibili da jendea urtetan. 120 platanondo hauen etorkizuna Balleko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean adostuko da. Mo-

mentuz, industrialde berriaren lanetako sartu irteerak errazteko bertz zuhaitz moztu dira.

Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Departamentuaren arabera, «errepide zati horretako segurtasuna hobetzeko hartu beharreko neurriak oztopatzen dituzte zuhaitzek». Departamentuaren ustez, sustraiek zola «gogor-ki» hondatzen dute. Egokiena, Elizondo aldera begiratuta eskuin aldeko zuhaitzak mozte eta errepidea alde horretara zabaltzea dela uste dute Departamentuan, baina Udalaren inonizirik gabe ez dutela ja eginen azpimarratu dute.

Balleko Udalak ez du oraindik zati honetarako proiekturik, baina gauzak ongi egin nahi dituzte eta behin betiko soluzioa eman aferari.



DIARIO DE NAVARRA

Bederatzigarren urtez Dantzari Eguna ospatu zuten Iruritan irailaren 28an. Maribel San Jose eta Iñaki Urrutiaren erranetara, 70 bat dantzari hartu zuten parte ekitaldian. Eguerdiko dantza erakustaldiaren ondotik, herri bazkaria izan zuten.

Horregatik, saihesbidearen aurreproiektuarekin batera aurkeztu nahi dute zati horretako aurreproiektua ere. Flo-

rentino Goñi zinegotziak aipatu duenez, «oinezkoendako bidea moldatu nahi da, zuhaitz berriekin, bankuak...».

Ura hartzeko eskaerak aztertzeko batzordea osatuko da

Ura hartzeko eta eramateko 38 eskari eztaba-datu ziren San Migel eguneko Junta Generalean. Horrelako uholdearen aitzinean, eskaerak eta beharrak aztertuko dituen batzorde bat osatzea erabaki zuen Juntak. Virginia Aleman Baztango alkatea izanen da batzordeko lehendakaria, Amañur, Aniz eta Elizondoko alkateekin batera.

ORDOKI LIKOREAK
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE
☎ 948 45 20 88

BAZTAN

Elizondoko igerileku estaliaren kudeaketa eman du Balleko Udalak

Mutiloa-goitiko Gesport Gestion Deportiva enpresak hartu du

ttipi-ttapa

Elizondoko udal igerileku estaliak kudeatzeko zerbitzua Mutiloa-goitiko Gesport Gestion Deportiva enpresak egiten du. Lehiaketara aurkeztutako proposamen ekonomiko eta teknikoak aztertu ondoren, erabaki hori ahobatez hartu zuen Baztan Balleko Udalak irailaren 19ko batzarrean, aukerarik onena zelakoan. Gesport enpresak urteko 3.487,87 euro ordaindu beharko dizkio udalari.

Igerilekuen kudeaketaren inguruan, Bidasoa Kultur Zerbitzuak enpresaren izenean, Mattari Altzuarde aniztarrek aurkeztutako errekurtsioa ere aztertu zuten batzar berean. BKZren uestez, lehiaketa bertan behera utzi behar da, «kudeaketa plana egiterako orduan enpresa guziek ez dugu-lakoz aukera berdina izan». Deialdia berriz errepikatu beharko litzakeela uste du BKZk, proiektua puntuatzerakoan zer hartzen den kontuan argi eta garbi



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamenduak antolatuta, Arizkongo Aingeruen Amabirjinaren monastegian bisita gidatuak egin zituzten urriko lehen aste hondarrean. Ekitaldiak arrakasta izan zuen, 200 bat bisitari izan baitzuten ahizpa klarisek erabiltzen duten komentuari.

zehaztuz. Deialdia deusetzatzea eskatzeko bi

arrazoi ematen ditu BKZk. Alde batetik, Baztango Udalak «ez du bere hizkuntz-erregimena errespetatu plegua egiterakoan, gazteleraz bakarrik idatzi duelakoz eta ez bi hizkuntzetan». Bertetik, «kudeaketa planean puntuatzen zuten atalen berri ez genuen, guk behinpein eta proiektuaren atal batzuk puntuatu izanak, bidegarritasun plana erraterako, parte harte duten enpresen arteko ezberdintasunak eragin ditu» beti ere BKZren uestez.

Balleko Udalak, aldiz, kudeaketa ematerakoan lehiaketa deialdiaren irizpide guztiak bete dituela jakinarazi zuen eta, honenbertzez, ez zuen BKZren errekurtsioa onartu.


PERTSONAIA

Xabier SOUBELET

Arizkongo erakusketaren itxierara ere gonbidatu du margolariak

Ohikoa da artistek beraien erakusketen irekiera ekitaldietara gonbidatzea eta halaxe egin zuen uda hasieran Xabier Soubelet margolariak. Arizkongo Sasternean dagoen Xubiltz elkartean izan du erakusketa uda osoan Ziburun sortu eta Baztanen bizi den artistak. Orai, erakusketa itxiko duela eta, urriaren 18an, larunbatarekin, 19:00etatik aitzinera egingen den ekitaldirako gonbidapena egin du. Soubelet-en lagunak diren kantariak, musikariak eta margolariak izanen dira itxiera ekitaldian.

Oronozko San Martin eskolako ikasle ohiek bildu ziren

San Martin eskolako ikasle ohien elkarteak Urrezko Ezteiak ospatu zituen urriaren 4an. Pilotaleku berrian elkartzeko ziren profesionalen arteko esku pilota partida ikustera: Mikel Goñi eta Unai Apeztegia, Capellan eta Goñi III. ren kontra aritu ziren.

asnáp.me
servicio conjunto de la pequeña y mediana empresa

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Gortak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igerilekuak...
- NEKAZARIK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Gortak asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inposituak
- Errenta aitortpenak

DOHETARI
Rita Semerik, 4. bulego
Tele: 948 451 933 (Tele/Fax: 948 451 616)
perthelbarr@asnappyme.com

ELIZONDO
Sotelo, 51. bulego
Tele/Fax: 948 580 506
elizondo@asnappyme.com

LEZUZA
Sotelo, 1. bulego
Tele: 948 261 208 (Tele/Fax: 948 261 949)
guzteia@asnappyme.com

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiok karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - **URDAZUBI**

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Girona

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORONÓZ-MUGAIRI**

SARA

Herriko gazteek bere orga plazaratu zuten Uztaritzeko Lapurtarren Biltzarra kari

Eliza dorrearen erretzea irudikatu zuten

Saski eta Xan

Antolatzaileek suertepixka bat ukan zuten bi euriteen artean desfilea egin ahal izan baitzuten. Denbora zela eta orga guttiago aurkeztu zen urriaren lehen igandean huntan. Hala ere hamar bat karro ailegatu ziren Uztaritzeko plazaraino. Desfile jendetsu baten ondotik elgarrekin bazkaldu zuten eta Lapurdi ospatu zuten eguna finitu arte.

Joan den urtean Sarako gazteek urruneko aktualitatea aipatu baitzuten Ben Ladenen karro bat eginez, aurtez aldiz hurbil hurbileko gertakari bat aipatu dute, hala nola azken hilabete huntan Saran aho guzietan aditzen den gertaera, eliza dorrearen erretzea.

Bezperan egiten den kontzertuan Sarako Musika talde berriak, BKBOk, jo zuen ehun bat lagunen aitzinean.

Errugbian puntuen ondotik

Nahiz eta sasoin has-tapen on bat egin Sarako errugbi taldeak ez du oraindik puntu bat ere eskuratu. Lehen matxan, hemen jadanik aipatu bezala, Hossegoren kontra berdindu zuten baina matxa hori berriz jokatu beharko dute, epaileak norgehiagoka gelditu baitzuen min hartu ondotik.

Buruilaren 28an Uztaritzeko kontra aritu zi-



ARGAZKIA: SASKINET

Sarako gazteek ez zuten huts egin Lapurtarren Biltzarren hitzordura.

ren Animaineen bainan nahiz eta joko ona erakutsi garaipena eskapatu zitzairen, eta galdu egin zuten 12 eta 17.

Ondoko igandean Kanbora joan ziren eta hor ere galdu zuten 11 eta 6. Baina hor bai bazituztela triste izateko

arrazoinak, matxa ona egin zuten bainan huts egin zuten puntuak hartzeko momentuetan eta horrela bizpahiru en-

tsegu huts eginez, berriz ere norgehiagoka eskapatu zitzairen.

